ttipi ttapa

351

2003ko ekainaren 5a • XXIII. urtea



## Unai Barazabal Nafarroako txapeldun 04

Txirrindularitza afizionatuan, elite mailako txapeldun suertatu da Caja Rural taldean ari den Unai Barazabal azpilkuetarra, maiatzaren 18an Lukinen.



## Kirol denboraldiko balantzea GB

Eskualdeko kirol talde ezberdinek denboraldian egindakoaren berri zabala. Tartean, bertzeak bertze, Lesakako Beti Gazteren txapelketa eta igoera.

# 03 Hauteskundeen emaitzak herriz-herri



# MUEBLES AMETS





**LARUNBAT ARRATSALDETAN IREKIA**

**Sarrera BERAtik da**

*Sastrin karrika,*
*3.2 - 3.4 Alkaiaga*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE WEB ORRIA
**www.mueblesamets.com**

***Sukaldeak***
***Egongelak***
***Logelak***
***Bainugelak***

## 4000 m²
## erakusketa
**AUKERA HANDIAK**

**KOLTXOIAK**

- MALGUKIA
- LATEX-a
- MISTOA

**OINARRIAK**

- SOMIERRAK
- ABATIBLEAK
- TAPIZATUAK

**%50 deskontua**







# Hauteskundeen emaitzak

## Udalak, kontzejuak eta Nafarroako Parlamentuaren osaketa erabaki dira

**Herriko Etxeetarako nahiz Parlamenturako hauteskunde berexiak izan dira aurtengoak. Kasik 3.000 laguneko zentsoa duen Beran, adibidez, ezin izan dute udal hauteskunderik egin, zerrenda bakarra (Berainez) debekatu zutelako.**

### UDAL HAUTESKUNDEAK HERRIZ HERRI (03/V/25)

**ARESO**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Mikel BARAIBAR (Batzarre)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| GIA | 4 (115 botu) | 3 (99 botu) |
| Batzarre | - | 4 (146 botu) |
| EH | 3 (113 botu) | - |
| Nuloak | - | 4 botu |
| Txuriak | - | 1 botu |

**BAZTAN**
13 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Virginia ALEMAN (Eusko Alkartasuna)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA | 6 (1832 botu | 8 (2554 botu) |
| UPN | 5 (1748 botu) | 5 (1615botu) |
| EH | 2 (882 botu) | - |
| PSOE | - | 0 (107 botu) |
| Nuloak | - | 471 botu |
| Txuriak | - | 76 botu |

**DONEZTEBE**
9 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Ramon ETXEBESTE (Eusko Alkartasuna)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA | 7 (575 botu) | 5 (427 botu) |
| PNV | - | 4 (349 botu) |
| EH | 2 (165 botu) | - |
| Nuloak | - | 60 botu |
| Txuriak | - | 37 botu |

**ETXALAR**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Miguel Mari IRIGOIEN (Herri Taldea)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| HT | 5 (299 botu) | 4 (264 botu) |
| EA | 2 (154 botu) | 3 (209 botu) |
| Nuloak | - | 6 botu |
| Txuriak | - | 11 botu |

**LEITZA**
11 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Silvestre ZUBITUR (UPN)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EH | 6 (893botu) | - |
| EA | 3 (488 botu) | 2 (284 botu) |
| UPN | 2 (410 botu) | 5 (497 botu) |
| Aralar | - | 4 (485 botu) |
| Nuloak | - | 553 botu |
| Txuriak | - | 30 botu |

**LESAKA**
11 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Jose Luis ETXEGARAI (EAJ-EA)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EAJ-EA | 7 (995 botu) | 6 (746 botu) |
| EH | 4 (556 botu) | - |
| ONIN | - | 5 (624 botu) |
| Nuloak | - | 310 botu |
| Txuriak | - | 30 botu |

### ZERRENDA IREKIAK (5 HAUTETSI)

| | | | |
|---|---|---|---|
| ELGORRIAGA | Bostorratz (5) | Alkatea: | Jose Migel Galarregi (B) |
| ERATSUN | Iruñarri (4) Er. Ag. (1) | Alkatea: | Pedro Antonio Deskarga (I) |
| EZKURRA | Idoia (5) | Alkatea: | Martin Gastearena (I) |
| SALDIAS | CIS (5) | Alkatea: | Pedro Urrutia (CIS) |
| URROTZ | HA (5) | Alkatea: | Ignacio Urroz (HA) |
| ZUGARRAMURDI | A (4), ZE (1) | Alkatea: | Lazaro Dainziart (A) |

### UDAL HAUTESKUNDEAK HERRIZ HERRI (03/V/25)
HAUTAGAI BAKARREKO UDAL HAUTESKUNDEAK

**ARANTZA**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Bixente AROZENA (EAJ-EA)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EH | 5 (339 botu | - |
| EAJ-EA | 2 (131 botu) | 7 (231 botu) |
| Nuloak | - | 232 botu |
| Txuriak | - | 18 botu |

**BERTIZARANA**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Andres ETXENIKE (BE)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| BE | 4 (214 botu) | 7 (281 botu) |
| AEB | 3 (188 botu) | - |
| Nuloak | - | 20 botu |
| Txuriak | - | 44 botu |

**DONAMARIA**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Ricardo SAGASETA (Herriarengatik)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| H | 4 (171 botu) | 7(206 botu) |
| HT | 3 (119 botu) | - |
| Nuloak | - | 12 botu |
| Txuriak | - | 44 botu |

**GOIZUETA**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Imanol LEGARRETA (Goizueta Bizirik)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EH | 7 (419 botu) | - |
| GB | - | 7 (422 botu) |
| Nuloak | - | 72 botu |
| Txuriak | - | 11 botu |

**IGANTZI**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Jesus Mari BEGINO (Herri Taldea)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EAJ-EA | 4 (215 botu) | - |
| HT | 3 (203 botu) | 7 (315 botu) |
| Nuloak | - | 18 botu |
| Txuriak | - | 58 botu |

**ITUREN**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Jose Mari GOROSTERRAZU (Eusko Alkartasuna)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA | 5 (197 botu) | 7 (207 botu) |
| EH | 2 (115 botu) | - |
| Nuloak | - | 70 botu |
| Txuriak | - | 22 botu |

**SUNBILLA**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Jose Mari HERNANDORENA (Eusko Alkartasuna)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA | 5 (285 botu) | 7 (301 botu) |
| EH | 2 (110 botu) | - |
| Nuloak | - | 116 botu |
| Txuriak | - | 14 botu |

**URDAZUBI**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Andres DIHARASARRI (Urtxume)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| U | 4 (161 botu) | 7 (183 botu) |
| IDU | 3 (109 botu) | - |
| Nuloak | - | 15 botu |
| Txuriak | - | 35 botu |

**ZUBIETA**
7 HAUTETSI
Alkategai bozkatuena
Jon Mikel ARANO (Elutsa)



| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EH | 7 (135 botu) | - |
| Elutsa | - | 7 (125 botu) |
| Nuloak | - | 5 botu |
| Txuriak | - | 5 botu |

**Arano, Beintza-Labaien, Bera eta Oitzen hemendik sei hilabetetara izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia.**

# NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (03/V/25)
















**BAZTANALDEA**

| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA-EAJ | 1355 | 1969 |
| UPN | 1979 | 1694 |
| Nuloak | 37 | 464 |
| EH | 973 | - |

**BORTZIRIAK**

| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA-EAJ | 1529 | 1727 |
| Nuloak | 27 | 904 |
| UPN | 1017 | 794 |
| EH | 1753 | - |

**LEITZALDEA**

| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| Nuloak | 39 | 836 |
| EA-EAJ | 581 | 536 |
| Aralar | - | 515 |
| UPN | 435 | 393 |
| EH | 1359 | - |

## ALDERDIRIK BOZKATUENAK ESKUALDEKA



**MALERREKA**

| | 1999 | 2003 |
|---|---|---|
| EA-EAJ | 1074 | 1250 |
| UPN | 809 | 638 |
| Nuloak | 49 | 391 |
| EH | 819 | - |

## ESKUALDEAN ALDERDI BAKOITZAK LORTU DITUEN EMAITZAK




• EA-EAJ koalizioa da eskualdeko alderdirik bozkatuena, inoiz izan dituen emaitza onenekin. Elkarrekin nahiz bereiz aurkeztu zirenean, ez zuten inoiz halako emaitzarik eskuratu.

• UPN da bigarren indarra, nahiz eta 700 boza baino gehiago galdu. Baztan, Urdazubi eta Malerrekako zenbait herrietako nagusitasun historikoa galdu du.

• AUBk bultzatutako botua gailendu da Aranon, Goizuetan, Leitzan eta Zubietan. Guzira 2.595 botu baliogabetu dira eskualdean. Aralarek 1897 eta Batzarrek 203 eskuratu ditu. Ezker abertzaleak, beraz 4.695 botu eskuratu ditu, 1999an baino 200 guttiago.

• CDNk behera egin du baina lehen indarra da Areson.

• PSOEk historiako emaitzarik txarrenak izan ditu. IU kasik berdin mantentzen da, 300 boturen inguruan.







Oharra:
• **EA-EAJ:** 1991tik 1996ra grisean dauden datuak, bi alderdiek lortutako botuen batuketa da
• **EH:** 1991tik 1996ra grisean dauden datuak, HBk lortutako botuak dira. 1999ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan indar nagusia izan zen eskualdean, 4.904bozekin.
Aurten AUB gisara aurkeztu eta botua baliogabetu du Espainiako Justiziak.

## ALDERDIRIK BOZKATUENAK HERRIZ HERRI (03/V/25)






| | Zentsoa | Parteh. | Aralar 1999 | Aralar 2003 | Batzarre 1999 | Batzarre 2003 | CDN 1999 | CDN 2003 | EA-EAJ 1999 | EA-EAJ 2003 | IU 1999 | IU 2003 | PSN 1999 | PSN 2003 | UPN 1999 | UPN 2003 | Baliogabeak 1999 | Baliogabeak 2003 | Xuriak 1999 | Xuriak 2003 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARANO | 133 | 71 | - | **19** | - | **0** | 6 | **4** | 17 | **19** | 0 | **1** | 3 | **0** | 10 | **4** | 0 | **23** | 2 | **1** |
| ARANTZA | 592 | 480 | - | **81** | - | **3** | 11 | **11** | 114 | **202** | 8 | **9** | 10 | **12** | 53 | **44** | 5 | **112** | 12 | **5** |
| ARESO | 258 | 249 | - | **17** | - | **45** | 67 | **78** | 25 | **26** | 1 | **3** | 6 | **6** | 36 | **19** | 4 | **51** | 5 | **4** |
| BAZTAN | 6396 | 4780 | - | **348** | - | **32** | 237 | **185** | 1280 | **1858** | 70 | **69** | 205 | **168** | 1782 | **1582** | 32 | **451** | 66 | **76** |
| BEINTZA-LABAIEN | 234 | 128 | - | **14** | - | **3** | 24 | **17** | 8 | **30** | 1 | **3** | 10 | **11** | 68 | **40** | 1 | **4** | 2 | **3** |
| BERA | 2913 | 1735 | - | **240** | - | **32** | 141 | **75** | 491 | **499** | 55 | **83** | 127 | **120** | 467 | **331** | 15 | **329** | 41 | **18** |
| BERTIZARANA | 529 | 360 | - | **26** | - | **1** | 31 | **10** | 134 | **136** | 8 | **17** | 19 | **13** | 110 | **87** | 9 | **54** | 18 | **15** |
| DONAMARIA | 325 | 264 | - | **47** | - | **2** | 21 | **3** | 97 | **106** | 4 | **2** | 9 | **12** | 83 | **63** | 2 | **19** | 8 | **8** |
| DONEZTEBE | 1078 | 870 | - | **97** | - | **8** | 54 | **48** | 324 | **340** | 30 | **20** | 55 | **44** | 215 | **227** | 9 | **57** | 11 | **28** |
| ELGORRIAGA | 172 | 130 | - | **24** | - | **0** | 6 | **8** | 33 | **44** | 2 | **2** | 6 | **1** | 45 | **25** | 3 | **22** | 1 | **3** |
| ERATSUN | 164 | 142 | - | **13** | - | **2** | 17 | **22** | 31 | **64** | 5 | **2** | 0 | **4** | 38 | **16** | 0 | **14** | 4 | **2** |
| ETXALAR | 661 | 485 | - | **47** | - | **1** | 28 | **12** | 136 | **222** | 10 | **6** | 17 | **8** | 112 | **79** | 3 | **96** | 29 | **13** |
| EZKURRA | 193 | 92 | - | **11** | - | **0** | 13 | **10** | 16 | **22** | 1 | **5** | 3 | **5** | 24 | **22** | 0 | **15** | 1 | **2** |
| GOIZUETA | 732 | 496 | - | **91** | - | **3** | 22 | **21** | 106 | **131** | 6 | **2** | 6 | **7** | 18 | **10** | 12 | **227** | 13 | **4** |
| IGANTZI | 518 | 393 | - | **52** | - | **8** | 24 | **30** | 151 | **136** | 6 | **8** | 13 | **22** | 101 | **84** | 3 | **44** | 11 | **7** |
| ITUREN | 411 | 311 | - | **46** | - | **3** | 11 | **10** | 141 | **151** | 1 | **3** | 4 | **6** | 33 | **30** | 4 | **59** | 4 | **2** |
| LEITZA | 2477 | 1838 | - | **388** | - | **15** | 37 | **69** | 433 | **360** | 27 | **20** | 48 | **63** | 371 | **360** | 23 | **535** | 26 | **23** |
| LESAKA | 2257 | 1707 | - | **212** | - | **31** | 55 | **54** | 637 | **668** | 28 | **46** | 67 | **86** | 284 | **256** | 21 | **323** | 39 | **27** |
| OITZ | 122 | 70 | - | **3** | - | **0** | 9 | **1** | 27 | **34** | 0 | **5** | 3 | **0** | 12 | **13** | 2 | **12** | 1 | **2** |
| SALDIAS | 118 | 87 | - | **9** | - | **3** | 6 | **19** | 28 | **27** | 0 | **0** | 1 | **1** | 21 | **8** | 1 | **17** | 3 | **3** |
| SUNBILLA | 630 | 427 | - | **37** | - | **4** | 20 | **13** | 191 | **229** | 5 | **1** | 9 | **18** | 85 | **65** | 11 | **58** | 7 | **2** |
| URDAZUBI | 347 | 233 | - | **34** | - | **1** | 45 | **37** | 60 | **72** | 5 | **2** | 6 | **11** | 92 | **63** | 1 | **6** | 5 | **5** |
| URROTZ | 158 | 97 | - | **6** | - | **4** | 10 | **12** | 19 | **27** | 1 | **0** | 0 | **3** | 54 | **32** | 0 | **3** | 3 | **5** |
| ZUBIETA | 270 | 146 | - | **24** | - | **2** | 3 | **6** | 25 | **40** | 2 | **1** | 9 | **5** | 21 | **10** | 7 | **57** | 11 | **1** |
| ZUGARRAMURDI | 203 | 150 | - | **11** | - | **3** | 3 | **18** | 15 | **39** | 8 | **8** | 7 | **10** | 105 | **49** | 4 | **7** | 10 | **4** |

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa…
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 25 € |
| Espainia | 25 € |
| Ipar Euskal Herria | 35 € |
| Europa | 35 € |
| Amerika | 105 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso | 20 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Berako bizilagunen protesta, N-121-A errepidea moldatzeko Nafarroako Gobernuak egin duen proiektuaren aurka




Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamendua N-121-A errepidea 65. kilometrotik Berako herrira bitarte moldatzeko proiektua prestatzen ari denez, bizilagun batzuk eta proiektu horrek ukitzen dituen beste batzuk bildu ondoren, nafar gizarteari, oro har, eta Nafarroako Gobernuari, bereziki, adierazi nahi diegu gure atsekabea eta etsipena, egin gogo dena ikusita.

Delako proiektuaren bidez moldatu nahi dute gaurko errepidea abiadura handiko errepide bilakatzeko. Horretarako Bidasoa gainetik bi zubi eginen dira, eerrepidean errei gehiago, alde guztietarako komunikazio lokarriak, azpiko pasabideak, eta oro har orain dauden erreiak handitu eta gehiago sartu. Horrela egiten bada okupatuko dira laborantzako eta abeltzaintzako alor joriak, inguru honetan gero eta guttiago gelditzen baitira, ingurumenari eta ekologiari begira kalte handiak sortuko dira (ukituak gelditoko dira BIL eremu bat, nekazaritza eta abelzaintza ekologikoko ustiapenak: proiektua aitzinera ateratzen bada bizi ahal izateko behar dituzten inguruaren kalitate beharrengatik ezin izanen dute segitu), paisaiari izugarrizko kaltea eginen dio, baita Bidasoaren eta haren bazterren itxurari, soinua eta kontaminazioa ere handituko dira ikaragarri, inguru honetan diren nekazaritza, abelzaintza ea basogintzako jarduerak bertan behera edo ezin bizi gelditoko dira eta, oro har, kalte itzela Nafarroako Bidaso aldeko lurralde ederrenetako jendearen bizimoduari eta lanbideari. Bizilagun hauen asmoa ez da, inola ere, garapen ekonomikoaren eta komunikazio azpiegituren kontra joatea. Arront bertzelakoa da. Guk geure alorretan segitu nahi dugu bizitzen eta lan egiten, geure ustiapenetan, paisaia hobetzen, balio eta produktu ekologikoak sortzen, Bidaso alde honek duen basogintza, nekazaritza eta abeltzaitzako aberastasuna mantentzen, baita fauna eta landaretzarena ere. Horregatik bada, ez dugu nahi, inondik ere, errepidea egokitzeagatik kalitatea galdu eta horren ordainean kalteak jaso, eta abantaila bakarra ere ez.

Hortaz bada, eta horrela adierazi genuen alegazioak aurkeztu ziren garaian, proiektatua dagoen trazaduarentzat bertze konponbide bat proposatzen dugu. Konponbide hori, Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamenduak berak proposatzen zuen, tunela egitea da. Ukitutako eremuan barna pasako da, eta mantenduko da gaurko errepidea zerbitzu bide gisa eta sarbide gisa, inguruko baserrietara, etxe partikularretara eta nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako eremuetara ailegatzeko. Hori eginen balitz, ez litzateke bi zubien beharrik izanen, ez eta komunikazio lokarria edo azpiko pasabideak egin beharrik ere, hobeki errespetatuko litzateke inguruko estetika, paisaiari eta bertako ustiapenei kalte egin gabe, Bidasoa ondoko bazterren konfigurazioa mantenduz.

Bertzetik ere, konponbide hori egokiro lotua egonen litzateke N-121-A errepidea moldatzeko egin den proiektuaren helburuekin, eta orduan bai izanen litzatekeela egiazko abiadura handiko errepidea. Ez litzateke inolako trabarik sortuko abiadura handiko errepidearen eta gaurko ustiapenetara sartu-ateratzeko lokarrien artean; desagertuko lirateke orain sortuko diren izugarrizko nahaspilak trafikoaren abiadura eta arintasuna bat egin nahi badira: lurzatietara sartzeko errepidearen alde banatan dauden etxebizitzen eta ustiapenen arteko komunikaziogune izatea, edo errepidean barna nekazaritzako makineria ibili beharra, basogintzako lanak errepide bazterretan egin beharra, etab. Bertzetik ere, erran beharra dago guk proposatzen dugun konponbidea eginez gero, bihurgune guttiago izanen direla, kilometro guttiago, eta proiektuko errepidean trafikoa hobetuko dela, eta gainera kontuan hartuta teknikoki erraz egin daitekeela, hori adierazi baitzuen Iberinsako talde egileak, Nafarroako Gobernuak proiektuaren azterketa teknikoa egiteko kontratatu zuenean.

Gure ikuspuntua ikus dezatela nahi genuke, ingurua ezagutzen dugulako eta bertan bizi garelako, beldur baikara orain dugun guzia galtzeko, eta badakigulako, jendeari eta ekologiari begira, kostu ttikiagoko konponbideak badirela, teknikoki egin daitezkeenak eta, gainera, komunikazio errepide baten egiturari egokituago daudenak.

Horregatik bada, dei egiten diogu nafar gizarteari, bertako agintari politikoei eta Nafarroako Gobernuari, proposatzen dugun konponbidea, guttienez, azter dezatela. Geure burua eskaintzen dugu behar diren bileretara agertzeko, afera hau egiazko hobekuntza izan dadin denondako, eta hain ederrak diren leku eta xoko hauek gal ez ditzagun, trafikoz lepo dauden errepide handiek irentsiak, soinuak eta poluzioak janak. Jakinik, gainera, konponbideak badirela egiazko garapen jasangarriari hobeki erantzungo lioketenak.

**Gabriel ERRANDONEA eta bertze 25 sinadura**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



NABARRA 2003-05

*«Aitatxiri aditu izan nion lehenbizikoz bertsotan. Ni haurra nintzenean hil zitzaidan, baina, aitarekin Lesakara merkatura joaten ginenean, bertso paperak erosten genituen, eta haiek ikasten genituen. Irratiz ere aditzen genituen eta orain ere hala segitzen dut bertsolaritza. Aunitz gustatzen zait irratiz segitzea, beti hala aditu izan ditut bertsoak».*

Bautista MADARIAGA
Arantzako bertsolaria
NABARRA 2003-05

*«Presoekin gertatu dena gauza oso puntuala da, guztiz lekuz kanpokoa. Ez dut uste ministro batek horrela trata ditzakeenik unibertsitateko agintariak. Nik ere izan ditut preso ikasleak, oso preso ezagunak gainera. Eta esatea nirekin ez dutela horiek azterketa behar bezala gainditu irain bat da niretzat, baita irakasle askorentzat ere».*

Pello SALABURU
EHUko errektore ohia
ZABALIK 2003-05-16

## • 11 GALDERA LABUR•



**Aintzane MENDIBURU**

***Senpereko gaztea. ESAITeko kidea***

**Herri Urrats, Euskal selekzioaren aldeko eguna... Senpere al da erreibindikazioaren hiriburua?**
Azkenean hori pentsatzen ahal da, gertatzen dena geografia mailan herri egokia dela halako festen antolatzeko.

**Noiz ikusiko dugu euskal selekzio bat Munduko txapelketa batean?**
Agian ahal bezain fite.

**Futbola Hegoaldean, errugbia Iparraldean… Zein da euskal kirol nazionala?**
Pilota, kirol euskalduna eta bi aldeetan arrakasta duena.

**Zein kiroletan irabaziko luke Euskal Herriak Munduko txapelketa?**
Edozein kiroletan.

**Pilotaririk gogokoena?**
Ze galdera, Aimar bistan dena (je, je!)

**Gehien maite duzun kirola?**
Arrauna.

**EHko futbol selekzioa ez da Amerikara joanen azkenean. Klubak selekzioaren gainetik daude oraindik?**
Dirudienez bai.

**Asteburuko planik onena, kirola edo ostatuz ostatu ibiltzea?**
Kirola egin ondoren ostatuz ostatu ibiltzea.

**Arraunean aritzen zara. Noizko Lapurdiko traineru bat Kontxako estropadan?**
Nahiko arraunlari iraunkor aurkituko ditugularik.

**Amaiur Alfaro herritarraren bidetik, itsasoz itsaso ibiltzea gustatuko litzaizuke?**
Hain luzaz itsasoa baizik ikusteak neri beldurra ematen dit!

**Ezagutzea gustatuko litzaizukeen txokoren bat?**
Grezia.

I CHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara
✆ 948 637404
✆ 900 704704



GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

ERROTAZAR
Haratégia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA



HEZKUNTZA

# UEUk kalitatezko aukera proposatzen du udako ikastaroetan

Iruñean eta Biarritzen ez ezik, Ondarroan ere eginen da ikastaro bat

**ttipi-ttapa**

Iruñean aurkeztu du Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) udako ikastaroen aurtengo ekitaldia, «Haize berriak» lelopean. Berrikuntza nabariekin datozen ikastaro hauek aukera zabala eta kalitatezkoa eskaintzen dutela azpimarratu dute antolatzaileek, eta edozeinek topatu dezakeela bee intereseko ikastaro bat. Gainera, udako ikastaro hauek «zerbait gehiago» eskaintzen dutela ere aipatu dute. Gogorarazi behar da, gure eskualdean ikastaro hauetan parte hartzen duten herritarrentzat dirulaguntzak emanen dituztela Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako Mankomunitateek, baita Baztango Udalak ere.

Izen emateko epea ireki da dagoeneko eta ekainaren 29an akautuko da. Ekainaren 14tik aitzin, baina, %15 garestiagoa izanen da. Ohiko lekuetan egin ahal izanen da matrikula. Nafarroan, UEUk Iruñean duen egoitzan (Joaquin Beunza 13 bis; 948 362563), Karrikidendan (948 222589) edo Auzolan liburudendan (948 153867). Lapurdin, UEUk Baionan duen egoitzan eman behar da izena (Douer karrika 5, 0559356056). Halere, UEUk web-gune bidezko matrikula bultzatu nahi du, jendearentzat azkarragoa eta eerosoagoa baita: *http://www.ueu.org/ueu/index.*



ARTXIBOKOA

**Izen eta profesional handiak izanen dira aurten UEUko ikastaroetan. Errate baterako, Juan Mari Arzak sukaldariak «Philosopia eta oilo zopia» saioan ariko da. Jose M. Gorrotxategi gozogilea, Mikel Garaizabal enologoa ere bertan izanen dira.**

Matrikula prezioei dagokionez, iaz bezala, matrikulatuaren izaera (ikasle, langabetua…) eta ikastaroaren iraupenaren arabera desberdina izanen da.

Guzira 28 ikastaro ezberdin eskainiko dira, 15 Iruñean, 12 Biarritzen eta bakarra Ondarroan. Guzira 510 ordu izanen dira eta 197 irakaslek hartuko dute parte aurtengo ikastaroetan. Tartean Juan Mari Arzak sukaldaria, Joan Mari Irigoien eta Kirmen Uribe idazleak, Eneko Olasagasti, Asier Altuna eta Koldo Almandoz zine zuzendariak, Pello Zabala musikologo eta eguraldi iragarlea eta aurtengo CAF-Elhuyar sariaren irabazleak bertan izanen dira.

KULTURA

## Trikitixa txapelketa ezberdinetan izen emateko epea zabalik

Uda hurbiltzen den neurrian, sasoi honetan azken urteetan ohikoak bihurtu diren trikitixa txapelketetan izen emateko epea ere ireki da.

Honela, ekainaren 22an, Etxalarko trikitixa txapelketa jokatuko da, bi mailatan banatuak: 7-12 urtekoak eta 13-15 urtekoak. Izen emateko epea ekainaren 15ean akautuko da.

Ekainaren 30ean Doneztebeko trikitilarien topaketa eginen da, besten barrenean. Trikitixa eskola ezberdinek kalejira eginen dute herritik eta ondoren Santa Luzia plazan eskola bakoitzaren emanaldia.

Uztailaren 5ean, azkenik, Baztan-Malerreka-Bidasoako trikitixa eginen da Lesakan, 16 urtetik goitiko musikarientzat. Izen emateko epea ekainaren 29an akautuko da, bertzeetan bezala 661 845 055 telefonora deitu (Jone).




«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR










JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
PINTURA LANAK OROKORREAN
666 235 466
948 630 683
Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

BERA

# Lehenbiziko bestak, Altzateko bestak ekainaren 13tik 15era

Seigarren Herri Lasterketa ekainaren 7rako antolatu du Gure Txokoak

Amaia eta Ainhoa

Uda ailetzear dago eta honen seinale izaten dira herri eta auzo desberdinetako bestak. Altzatekoak datorren ekainaren 13an hasiko dira ilunabarrean Maristatan jokatuko den III. Pilota Goxo Bestarekin. Arratsean, ohitura den bezala Altzateko ostatuetan Rock, Blues eta DJ kontzertuak izanen dira 22:00etatik aintzin. Altxaferoa larunbatan botako da 12:00etan Larrakaitz txaranga, buruhandi eta erraldoiek lagunduta. Haurrek arratsaldean Matzada inguruan txirrindula txapelketa eta ginkana egiteko aukera izanen dute opari eta guzi. 20:00etan hasi eta hortik aurrera bertso poteoa, txistularien kalejira, suzko zezena eta Larrakaitz txaranga izanen dira auzoa alaitzen. Igandean aldiz, arrantza lehiaketa (zizarearekin) eta Ehiza Ibilaldia (Nafarroako Kopa) jokatuko dira goizean. 18:00etan Gure Txokoako dantzariak eta bonba japoniarrak ikusi ondotik, Jalisko Banden eskutik dantzaldia izanen da 20:30etan hasita. Bestei bukaera emateko suzko zezena aterako da karrikara.



ARTXIBOKOA

**Dena ez da musika, ostatua eta buila izanen Altzateko bestetan. Zizarearekin arrantzan egiteko modua ere izanen da igandean.**

KIROLA

### *VI. Herri Lasterketa ekainaren 7an*

Aurten ere Gure Txokoa Elkarteak Berako Udalaren laguntzarekin antolatu du herri lasterketa. Seigarren edizioa izanen da ekainaren 7an eginen den hau eta aintzinekotan bezala gazte eta haurrek parte hartu ahal izanen dute. Kategoria bakoitzeko ordutegi eta zirkuito desberdinak prestatu dituzte. Haurrak arratsaldeko 17,30tan hasiko dituzte frogak eta nagusiak 18,30tan. Izen emateko eta informazio gehiago eskatzeko Toki-Ona kiroldegira joan edo 948630215 telefono zenbakira deitu daiteke.

## Labiaga ikastolatik deialdia

Labiaga Ikastolak lagun eta familietan zabaldu nahi duen kanpaina bat martxan jarri du. Ikastolak, bazkideen ekimen eta laguntzari esker, hogeita zortzi urte bete ditu. Beraiek egindako lanari eta laguntzari esker, ikastolak traba aunitz gainditu dituela azpimarratu dute. 1974an, ikastolako bazkideen bidez sortu zen eta orain, ikastolako bazkide gisa, izena emateko deialdia zabaldu dute. Bazkideek hiruhilabeteko, seihilabeteko edo urte osoko kuota ordainduko lukete. Kuota hori bakoitzak nahi duena izaten ahal da, *«kantitate ttiki aunitzek laguntza haundia suposatzen baitute»*. Dagoeneko bazkide direnek ere, izanen dute kuota handitzeko aukerarik, horrela nahi balute. Bertzenaz, orain artekoa mantenduko da.

FLASH

### *Helena Santesteban parlamentari*

Helena Santesteban beratarra, EA-EAJ koalizioko parlamentari berria izanen da Iruñean. Zerrendan laugarren zen Helena eta lau parlamentari lortu ditu A-EAJk.

### *Berainez*

Berainez herri plataformak maiatzaren 25ean jasotako babesa eskertu du ohar baten bidez. Ekainaren 14an, Hego Euskal Udalen osaketa eginen dela eta, Duintasun Eguna deitua dagoela kontuan harturik, *«herritarren botuen zilegitasunari erantzuna emanen diotela»* jakinarazi dute.

### *Txakurren txertoak*

Ekainaren 9, 10 eta 11an Herriko Etxean zakurren txertoak jartzen egongo da albaitaria 17:00etatik 20:00etara.

KORTA
AROZTEGI METALIKOA
BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**
BERA DESINFECCIONES
✆ 948630155
BERA

✆ 948 631462
Altzate 1 • BERA
Xirail

## LESAKA



# Ordiziako Feria bisitatuko du San Fermin elkarteak

### Ekainaren 11n eginen dute egun bakarreko txangoa

**Aitor AROTZENA**

San Fermin erretiratuen elkarteak Ordiziako feria bisitatuko du heldu den asteazkenean, ekainaren 11n. Gero Aginagako sagardotegian bazkalduko dute eta Zarautz bisitatuko dute. Horretarako, elkarteko bazkideek izena eman beharko dute ekainaren 7a baino lehen (22 €). Autobusean leku librerik geldituko balitz, ekainaren 8an izanen dute bazkide ez direnek izena emateko modua (25 €).

Bertzalde, jubilatu elkarteko txapelketa ezberdinak jokatuko dira ekainean. 9an, seien txapelketa jokatuko da, 10ean mus txapelketa, 12an despiste txapelketa eta 13an, bolo, toka eta igel txapelketa. Txapelketa guziak 18:00etan hasiko dira.

### *Urrezko eta Diamantezko Ezteiak*

Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteek omenaldia jasoko dute ekainaren 5ean. Nafarroako Kutxaren Urrezko Adina Klubak antolatzen duen bestan lau bikote omenduko dituzte. 50 urte esposaturik bete dutenak Jose Maria Irazoki Telletxea eta Mari Carmen Irazoki Telletxea, eta Jose Maria Ameztoi Irisarri eta Maria Ubiria Altzuguren dira. Ezkondurik 60 urte betetzen dutenak, Santiago Etxepeteleku Pikabea eta Estefania Telletxea Estrada, eta Ramon Andueza Telletxea eta Martina Errazkin Otxoteko dira.



ARGAZKIAK: AITOR

**Maiatzaren 24an Orion jokatu zuen Beti Gaztek Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailako txapeldun izateko finala Mondragonen kontra. Galtzen hasi ondotik, partiduari buelta eman eta 4-1 irabazi zuen Lesakako taldeak. Txapeldunen kopa eta baloia, Juan Mari Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko lehendakariaren eskutik hartu zituen Mikel Iriarte kapitainak. Gero, Oriora hurbildutako zaletuekin atera zuen argazkia Beti Gazteko talde nagusiak.**

## FLASH

### *Jose Luis Etxegarai alkate eta parlamentari*

Bosgarren legealdia beteko du alkatetzan Jose Luis Etxegarai PNV-EA zerrendako alkategaiak. 1999ko udal hauteskundeetatik 249 botu galdu bazituen ere, 746 lesakarrek eman diote botua PNV-EAren zerrendari eta 624k aurten sortu den Onin udal taldeari. Herria Aitzinera taldeak ere botu aunitz jaso zituen, baina jakina denez, Espainiako Justiziak baliogabetu egin ditu botu horiek. 310 izan ziren udal hauteskundetarako botu nuloak. Gauzak honela, PNV-EAk sei zinegotzi izanen ditu eta Oninek bortz. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan ere EA-EAJ koalizioa izan zen nagusi, 668 boturekin (1999an baino 31 gehiago). Baliogabeko botuak 323 izan ziren, gehienak espreski AUBri emanak. UPNk 256 botu eskuratu zituen eta Aralar 212rekin estreinatu da. Nafarroan EA--EAJk lau parlamentari eskuratu dituenez, zerrendan hirugarren zen Jose Luis Etxegarai alkatea parlamentari ere izanen da Iruñean.

### *Ezpatandatzariak lanean*

San Fermin eguna prestatzen hasiak dira dagoeneko Lesakako ezpatadantzariak. Horretarako, larunbatero 15:00etan biltzen dira Irain eskolan.

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasoila etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ANA janaridenda
Bittiria 41• ☎ 948 637518•LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

# Miguel Mari Irigoien bosgarren aldiz aukeratu dute alkate herritarrek

Itziar Mendikoaren koadro erakusketa ekainaren 7tik aitzin Kultur Etxean



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

### *Patinaje ikastaroaren akabila*

**Urte hasieratik herriko haur koadrila bat patinaje ikastaroan zebilen. Leire Olagarai eta Miren Olaetxea irakasleekin larunbat goizero bi ordutako txandatan biltzen ziren 35 bat haur. Bortz hilabeteren ondotik, joan den larunbatean izan zuten azkeneko klasea.**

**Joseba eta Nerea**

Joan den maiatzaren 25ean herritako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak izan ziren. Arratsaldeko zortzietan bukatu zen botoa emateko aukera eta emaitzak jakiteko tenorea iritsi zen. Bi izan dira aurkezturiko taldeak; alde batetik, Herri Taldea, Miguel Mari Irigoien buru dela, 264 botorekin lau zinegotzi lortu zituen, eta bestetik, Eusko Alkartasuna, Manuel Lezaren gidaripean 209 boto erdietsi zituen, ondorioz, hiru zinegotzi.

Aipatzeko da, dagoeneko Miguel Marik seigarren aldia duela alkatetzara aurkezten dela eta hauteskundeak irabazten dituen bosgarrena. Beraz, legealdi hau bukatzean 20 urte pasa izanen ditu Etxalarko alkatetzan.

### *Haurren eguna*

Kurtsoa bukatzear dagoen honetan guraso elkarteak Landagain eskolako irakasleekin batera XVI. Haurren eguna antolatu dute. Datorren igandean, ekainaren 15ean, ospatuko dute herriko ttikienek. Goizetik, plazan ikusgain egonen dira urtean zehar egindako hainbat eskulan, urtekaria...eta baita egun horretarako prestaturiko ipuinak. Eguerdian ipuin topaketan parte hartu duen haur bakoitzari ipuin bana opariтuko zaio. Ondotik, biak aldera haur guztiek elkartuko dira bazkaltzeko. Bazkarira joan nahi izanez gero Maineko Mari Cruzengana joan beharko txartela erosi ahal izateko 6 euroren truke. Kurtsoa bukatzeko modu ederra, dudarik gabe!

### *Udaleku irekiak*

Uda hurbiltzen hasi den honetan, Ipurtargi Aisialdi Taldea udalekuak prestatzen hasi da haurrek udan lagun artean ongi pasatzeko. Bi urte eta gero Joseba Olagaraik eta Nerea Mitxeltorenak eginkizun hau Amaia Agirre eta Leire Olagarairen eskuetan utzi dute. Baina aldaketa honetaz, gain badago bertze bat. Orain arte udalekuak bortz aste iraun izan du, aurten, aldiz, lau astekoa izanen da, ekainaren 23 hasi eta uztailaren 18an bukatuko baita.

### *Koadro erakusketa*

Joan den astebukaeran ikusgai egon zen erakusketaz gain, Altxata Kultur Elkarteak beste bat prestatu du hilabete osorako. Itziar Mendikoak Eli Mendiarekin eta Maribel Arangurenekin batera prestatu zuen erakusteta alde batera utzi, eta bere lanak bakarrik izanen dira ikusgai datorren aste bukaeratik goiti Kultur Etxeko bigarren solairuan.

### *Lehendabiziko jaunartzea egin dute lau haurrek*

Joan den igandean, hauteskundeekin batera, herriko lau haurrek beren lehenbiziko jaunartzea hartu zuten. Aldalurko Beñat Maia, Izargiko Aitor Danboriena, Olazarreko Imanol Vicente eta Antsoneko Bordako Xabier Gallardon izan ziren komunioa egin zutenak.

### *Txakurren txertoak hiltegi zaharrean*

Ekainaren 12 eta 13an hiltegi zaharrean zakurren txertoak jartzen egongo da albaitaria 17:00etatik 20:00etara.









IGANTZI

# Zegama eta Igantziko abesbatzen kontzertua ekainaren 14an

Errepide berria egiteko lur azterketak hasiak dira Berrizaunen

Oskar TXOPERENA

Gipuzkoako Zegamako Orkatz Abesbatzak eta Igantzikoak 2003an zehar trukaketa egitea erabaki dute. Trukaketaren joaneko kontzertuta Igantziko elizan izanen da ekainaren 14an, ilunabarreko 9,15etan, 10 kanta eskainiko dituztelarik. 1987an sortu zen Orkatz Abesbatza eta orduz geroztik Euskal Herriko nahiz atzerriko lehiaketa aunitzetan egona da. Igantzikoak abenduan itzuliko dio bisita.

### Lur azterketak

Hasi dira dagoeneko Berrizaun inguruan errepide berria izanen denaren lehenbiziko lanak. Bai Zeruneta ondoan eta baita Basataundi inguruan ere lurrak aztertzen hasiak dira, errepide berriaren zutabeak bertan paratzeko seguraski. Hurrengo urteak mugimendu handikoak izanen dira Berrizaunen eta Bidasoalde honetan.

### Egunkari berria

Maiatzaren 28an bildu zen Biltoki Elkartean egunkari berriaren akzioak herrian barrena banatzen ari den taldea. Kanpainaren bi lehenbiziko asteen emaitzak Igantziri dagokion kopurua aisa lortu beharko litzatekeela erakusten du, zeren egun horretarako 1800 eurotik goiti baziren bilduak eta oraindik bertze aste pare bat falta da kanpaina akautzeko. Lagundu nahi duen norbaitek ez badu oraindik eskaerarik hartu, Euskara Batzordearengana jotzen ahal du.



Maiatzaren 24an arratsaldez jokatutako zen Biltokik antolatutako frontenis txapelketaren finalean nahiko aisa irabazi zieten Jokin Rico eta Xanti Iturbidek Joxean Hita eta Javier Arburuari.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Lourdes Ibarluzea, Bea Lizardi eta Joxean Hitari egokitu zitzaien Nafarroako Parlamenturako eta Herriko Etxerako egin berri diren hauteskundeetako mahaian egotea. Orain dela lau urtekoekin alderatuz gero, partehartzea %82tik %76ra jaitsi egin da, baina jaitsiera haundiago espero zitekeen Herriko Etxerako talde bakarra aurkeztu dela kontutan hartuta. Parlamanturako EAJ/EA taldea izan zen garaile.**

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ✆ 948 631155 • BERA

Laudio pinturak
Pintura orokorrean
Fatxadak. Auzo elkarteak
Etxebizitzak:
• Barnizatuak • Paper lanak
• Gotele • Estukatua, etabar
• Hormak leuntzen

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina…)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak…)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

## Herria ezagutuz



### Olaetxea

Hagitz etxe gutti dira herrian bere sorrera Olaetxea bezain ongi dokumentatua dutenak. Izan ere, Herriko Etxeak eraiki zuen Berrizaungo Olaren arduraduna (olajauna) bizitzeko eta langileak lo egiteko. Berrizaungo Ola XIX. mendearen lehenbiziko urtetan hasi zen lanean –Olazar eta Garaikolakoak itxiak zeuden ordurako-, baina Olaetxea 1710 inguruan hasi zuten. Herriko argin eta zurgin profesionalek altxatu bazuten ere, azken txukuntze lanak, herriaren etxea izanik, auzolanean egin ziren. Izen ezberdin aunitz ezagutu ditu: *"Casa factoral"*, *"Casa del ferrón"*, *"Casa havitación de la herrería"*, *"Holaechea"*…
1856an, zor izugarriei ezin aurre eginik, bertze zenbait jabegorekin batera, subastan saltzea erabaki zuen Udalbatzak: *"subasta para la venta a perpetuo: Una casa factoral en 23.211 reales vellón"*. Ez dago ziur erraterik, baina orduan banatu izanen zen etxea gaur egun ezagutzen ditugun bi zatietan: Olaetxea (Olaetxegaina) eta Santzenea. Laister beteko ditu hiru mende.

## ARANTZA



# Arantzako lehendabiziko mendi itzulia eginen da igande honetan

Vicente Arozena izanen da hurrengo lau urteetan alkate

**Nerea ALTZURI**

Igande honetan, ekainaren 8an estreineko aldiz mendi itzulia eginen da, Herriko Etxeak, Gazte Asanbladak, Ekaitza elkarteak eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatu eta lagunduta. Herritarrentzat ez ezik herrikoak ez diren mendizaleentzat ibilbide polita ezagutzeko aukera emanen da, Arantzako zirkoa inguratuz. Arantzako plaza-Aranibar-Unanu-Itsaszelaia-Izu-Oilargaia-Ibintza-Ekaitza-Illurdi-Zepuru-herria dira itzuliaren puntuak, eta Mendaurrera igotzea aukerakoa izanen da. Ibilbidean parte hartzeko bortz euro ordaindu beharko dira eta ibilbidea 7:00etatik 8:00etara irekiko da, 6:30etatik 8:00etara izen ematea egiten ahal delarik. Kontrol postuak, jateko tokiak eta osasun guneak izanen dira seinalizatua izanen den ibilbidean eta itzuliaren akaberan, luntxa emanen zaie partehartzaile guziei. Bortz ordu terditik zazpi ordu bitartekoa da mendi itzulia.



ARGAZKIA:. XABI ZUGARRAMURDIK UTZIA

**Arantzako mendien barna izanen da ibilbidea, elurrik gabe noski.**

Informazio gehiago eskuragarri izanen da udaletxean (948 634005), Aterpen (948 634179) edo www.arantza.net web orrian.

## Vicente Arozena izanen da alkate datozen lau urteetan

Vicente Arozena eta EAJ-EAko bertze sei taldekideak izanen dira herria hurrengo lau urteetan gobernatuko dutenak. Espainiako gobernu eta auzitegiek Bagara udal taldea baliorik gabe utzi ondotik, talde honi emandako botuak ere balio gabe gelditu dira. EAJ-EA koalizioak 231 botu jaso zituen maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan, duela lau urte baino ehun gehiago. Baliogabetutako botuak berriz 232 izan ziren, horietatik 227 espreski Bagara plataformari emandakoak. Bertze 18 botu xuri izan ziren.

Beraz, Vicente Arozena alkatearekin batera, Sagrario Iparragirre, Pablo Bergara, Francisco Javier Taberna, Mª Luisa Almandoz, Juan Mari Iturria eta Jose Gabriel Larretxea ariko dira lanean Udaletxean.




Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • ✆ 948 630 763



## DONEZTEBE

# Arkupeak elkarteak omenaldiak eskainiko ditu ekainaren 27an

85 urte bete dutenak eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteak bilduko ditu kiroldegian

**ttipi-ttapa**

Arkupeak elkarteak urtero omentzen ditu 85 urte betetzen dituzten bazkideak eta Urrezko Ezteiak, 50 urte ezkondurik, ospatzen duten senar-emazteak. Aurten ekainaren 27an eginen da omenaldi besta hori Donezteben, San Pedro bestetako txupinazoaren bezperan. Aurten, Arkupeak elkartearen hamazazpigarren urteurrena ere ospatuko da.

Egitarauan ez da aldaketa handiegirik izanen. Goizez, hildako bazkideen omenezko meza izanen da. Nafarroako Gobernuko agintariak, alkateak, bertsolariak eta txistulariak ere bertan izanen dira. Meza ondotik emanen zaizkie opariak eta oroigarriak omenduei. Gero, bazkaria izanen da udal kiroldegian, joan den urtean bezala. Besta honetan parte hartzen duten mila lagunak Bordatxon baino erosoago daude eremu honetan, ez baita eskailerarik igo eta jautsi beharrik. Bazkaria Argedasko Jatetxe Modernoak eskainiko du. Arratsaldeko dantzaldia, Amalur taldearen eskutik izanen da.



ARTXIBOKOA

**50 urte ezkondurik bete dituzten senar-emazteak omenduko dira.**

### *Laxoaren gida-liburua*

Tiburtzio Arraztoa eta Josu Primek laxoari buruzko gida liburua argitaratu dute. Euskaraz eta gazteleraz idatzi dute eta 64 orri ditu.

## SUNBILLA



# Lehendabiziko jaunartzea egin zuten hiru haurrek maiatzaren 28an

Lehen jaunartzea egin zuten maiatzaren 28an Sunbillan Sara Salaberriak, Olaia Gandarak eta Aimar Lastirik. Meza ederki atera zen eta meza akitzerakoan Izaso Petrirena, Jabi Salas, Maite Mendibil, Maider Arauzo eta Mirian Arauzok egindako bi bertso kantatu zituen Izaso Petrirenak:

*Komunio honetan*
*Olaia, Aimar, Sara*
*Hirurek badutela*
*handia zirrara*
*Jaungoikoa hartzeko*
*sartu elizara*
*komunio eginda*
*denak poztu gara.*

*Familia, lagunak*
*eta zuek pozik*
*Jaungoikoa hartuta*
*atera barrutik*
*Bertso honetan gauz bat*
*erran nahi dizuet nik*
*komunioak ez dira*
*opariak soilik.*




**APARAN, S. A.**

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab…

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
**DONEZTEBE**

**MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA**

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab…

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**
- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**GIHARRE ARAZOAK**
- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab…

**KONTSULTA ORDUTEGIA**
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**San Marcial, 7-4 IRUN**

GOIZUETA

# Dagoeneko hasi dira Zaharren Egoitzako obrak

## Zabala eta Goikoetxea herriko eraikuntza enpresak eginen ditu 60.784 eurotan



ARTXIBOKOA

**Juanmartizenea etxearen beheko solairuan eginen da Zaharren Egoitza berria. Lanaren %40a Nafarroako Gobernuak ordainduko du.**

**Esteban AROTZENA**

Zabala eta Goikoetxea herriko eraikuntza enpresak hartu ditu bere gain Zaharren Egoitza berriaren lanak. Bi aurrekontu aurkeztu ziren Herriko Etxetik bere garaian luzatutako deialdiari erantzunez, bat aipatutakoena, 60.784 eurokoa, eta bestea, Hernaniko Jose Zerainena, hau 62.860 eurokoa. Lana bukatzeko ematen zen hilabete terdiko epearen barrenean biak sartzen zirenez, udalbatzak lehenengoari eman zion dagoeneko hasia den obra hau.

Lehen ere orri hauetan esan izan dugun bezala, Juanmartinzenea etxean babes ofizialeko etxebizitzak egin zirenean udalak berak gelditu zuen beheko solairuaren puska eder bat. Baita azkeneko urte hauetan gogor saiatu ere Iruñean zaharrek hainbeste estimatuko duten egoitza egin ahal izateko dirulaguntzaren bila. Azkenean etsituta edo, obrari ekitea erabaki zen Herriko Etxean, baita berehala Nafarroako Gobernuko Gizarte eta Ongizate departamenduak aurrekontuaren %40aren dirulaguntza eman ere, 25.144 euro.

### Hauteskundeak

Udalbatza berria osatuko duten Imanol Legarreta, Pello Salaberria, Jon Uitzi, Juan Jose Indakoetxea, Agustin Eskudero, Eva Elizegi eta Eli Salaberria ekainaren 14an jabetuko dira beraien karguetaz. 422 herritarrek eman zioten botoa Goizueta Bizirik izeneko zerrenda honi.

### Bidarraira rafting egitera

Igande honetan, ekainak 7, Behenafarroako Bidarrai herrira joanen dira hainbat herritar rafting egitera, Umore Ona elkarteak antolatutako irteeran.

### Aimar finalaren bila

Asteburuko atzerapena onartu eta igande honetan, ekainaren 8an, jokatuko du eskuz banakako finalerdietako ligaxkako azken partida Aimar Olaizolak, Patxi Ruizen kontra. 17 tantu egitearekin aski du, baina garaipenaren bila joanen da, besoko lesioa gainditu ondotik.

GU TNT I TLE
I CHE
GESTI NES F NE ES EL N TE, S.L.

TANATORIO BAZTANDARRA
Santiago 52 • ELIZONDO
Baztan, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan eta etxean prezio guzietan
✆ 948 581959
✆ 900 704704

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
- **Zurich Aseguruak**
  • Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  • Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  • Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  • Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  • Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Egunkari berriaren alde egiten ari den akzio salmenta kanpainaren barnean 22.000 euro baino gehiago bildu dira dagoeneko eskualdean.

36.730,38 euro biltzeko helburua zen Bortzirietan eta dagoeneko %40a bildu da, 14.650 euro. Igantzin, 3.069,22 eurotik 1.800 bildu dira (%58,64); Beran 13.452,21 eurotik 6.350 bildu dira (%47,20); Lesakan, 12.042,93 eurotik 5.100 jaso dira (%42,34) eta Arantzan 3.932,61 eurotik 1.400 (%35). Etxalarren 4.233,41 euro lortzeko helburua dute, baina momentuz ez da daturik. Malerrekan ere hasi berria da Berria Berri kanpaina eta momentuz ez da daturik.

Baztanen 34.402 euro jaso nahi dituzte eta momentuz 4.000 bildu dituzte, hau da %11,62. Urdazubin 2.116,70 eta Zugarramurdin 1.498,40 euro jasotzeko helburua dute, baina momentuan ez da diru bilketari buruzko daturik.

Leitzaldean, azkenik, Leitza eta Goizuetako datuak bildu ditugu. Leitzan, 15.647 euro biltzeko helburua dute eta hau idazterakoan 1.800 euro jasoak dituzte, %11,5. Goizuetan, 5.810 eurotik 1.200 jasoak dituzte, %21.

Bertze aldetik, harpidetza kanpaina ere aitzinera doaie. Bortzirietan, errate baterako, 190 harpidedun berri lortu nahi dira Egunkari berrirako. Momentuz, Arantzan 6, Beran 23, Etxalarren 9, Igantzin 4 eta Lesakan 7 lortu dira. Eskualde osoan 104 dira izena eman dutenak.




## BAZTAN

# Berroetako bestak ekainaren 6tik 9ra ospatuko dira

### Larunbatean gaupasa izanen da DJen musikarekin

**Ortzileria 6**

**21:00etan** fuetiak botako dira bestei hasiera emateko eta kalejira herriko trikitilariekin. **21:30etan** herri afaria: Baztanzopak trinketean. **23:00etatik goizalderaino** gaupasa JOXE ANGELekin.

**Larunbata 7**

**11:00etan** mendi igoera Abartanera: Kiko eta Osio (Berroetatik Abartanera joan etorria ordu bat eta laurden baino gutxiagon). **11:30etan** haur jokoak. **16:00etan** Ginkana. **18:00etan** ipuin musikaria. **19:00etan** txokolatada. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia trikitilariekin. **00:00etan** gaupasa: DJ Junny eta DJ Nash.

**Igandea 8**

**12:00etan** Meza Nagusia Baztango koralarekin. **13:00etan** luntx nahi duten guziendako. **13:00etan** pilota partiduak, Baztango pilotari gazteekin. **18:00etan** herri kirolak, sokatira eta proba konbinatua. Taldeak: Basaburua, Ziga eta Berriozar. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JOXE ANGELekin. **22:00etan** herri afaria plazan eta goizalderarte JOXE ANGELekin.

**Astelehena 9**

**11:00etan** bizikleta lasterketa. **12:00etan** margo lehiaketa eskolan. **12:30etan** mus txapelketa. **14:30etan** zikiro jatea. **18:00etan** futbito partidua. **19:00etan** sokatira saioa: ezkonduak ezkongabeen kontra. **19:30etatik 22:00etara** dantzaldia JOXE ANGELekin. **22:00etan** herri afaria. Ondoren dan-



ARGAZKIAK: RAMON APEZETXEAK UTZIAK

**1958ko azaroaren 11n, boxeo saioa izan zuten Berroetan. 1949ko argazkian Berroetako dantzariak ageri dira Almandozko bestetan.**



## Kultur taldeendako dirulaguntzak banatu ditu Udalak

Kultur lanean ari diren elkarte eta taldeek 15-285,87 euroko dirulaguntza jasoko dute aurten Balleko Etxetik, maiatzaren 13an hartutako erabakiaren arabera. Iruritako Dantzariek 601,01 euro jasoko dure, Elkartasuna aldizkariak 180,30 €, Pasioaren Ermandade Santuak 360 €, Santiago Bidearen Lagunek 600 €, Maribel San Jose Antzerkiak 901,52 €, Ertzuin Guraso Elkarteak 900 €, Iruritako Guraso Elkarteak 1084 €, Erratzuko elkarteak 1000 €, Jo ala Jo elkarteak 1202 €, Baztango Dantzariek 2500 €, Xubiltx elkarteak 400 €, Baztandarren Biltzarrak 2410 €, Elizondoko musika bandak 1803,04 €, Aranabia antzerki taldeak 600 €, Elizondoko abesbatzak 384 €, Miguel Iparragirreren akordeolari taldeak 300 € eta Rakel Goñik, Elbeteko web orria egiteagatik 60 €.









## BAZTAN

# Almandozko Bestaberri bestak ekainaren 18tik 22ra

### Azken egunean lehendabiziko jaunartzea eginen dute haurrek





Argazkiak: Ramon Apezetxeak utziak

**1964ko bestetako argazkian, soinulariak, apeza, pilotariak… ageri dira. Beheitian, urtebete beranduago Ramon Pierola pilotariari egindako omenaldia ageri da, arpanlariak lanean ari direla.**

Asteazkena 18
**12:00etan** txupinazoa. **21:00etan** Baztan zopak Leku Ederren.

Ortzeguna 19
**8:00etan** aurora herriko taldearekin. **12:00etan** Meza Nagusia eta prozesioa, Baztango koralarekin. **13:00etan** luntx frontoian. **17:00etan** pilota partiduak. **22:00etan** herri afaria, Mikel akordeolariarekin. **7:00etan** gosaria.

Ortzileria 20
Haurren Eguna
**11:00etan** pelikula emanaldia Leku Ederren. **17:00etan** haurrendako gaztelu puzgarriak, jokoak… **18:00etan** txokolatada. **22:00etan** afaria Leku Ederren. **00:00etan** dantzaldia TEKILA taldearekin. **7:00etan** gosaria gautxoriendako.

Larunbata 21
**11:30etan** mus txapelketa. **14:30etan** zikiro jatea mariatxiekin. **20:00etan** dantzaldia TEKILA taldearekin. **22:00etan** afaria. **00:00etan** dantzaldia TEKILA taldearekin. **7:00etan** gosaria.

Igandea 22
**12:00etan** Meza Nagusia. Umeen lehendabiziko Jaun hartzea. **17:00etan** antzerkia, herriko haurrek prestatua. **19:00etan** dantzaldia MIKELekin. **00:00etan** Gaixua Ni eta besten akabaila.

### *Eskualdeko akordiolari Topaketa igandean*

Igande honetan, ekainak 9. Bera, Lesaka, Doneztebe eta Baztango musika eskoletako akordeolari taldeen topaketa eginen da Elizondon. Baztango Akordiolariek, Balleko Udalaren laguntzaz antolatutako egitaraua goizeko 11:00etan hasiko da, gonbidatutako taldeek karrikaz karrika eginen duten kalejirarekin. Ondoren, 12:45etan Parrokiako zentroko aretoan kontzertua eskainiko dute.




BAZTAN
FUNERARIA
Mateo Lertxundi
TANATORIO ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• ✆ 948 580373 • 608 776176

SENPERE

# Iparraldeko geroaz erreferedumа bat antolatzea galdegin dute zonbait herritar eta hautetsik

## Kortsikan bezala herritarrek hitza hartu behar dutela dio herriko gehiengoak



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

**Urte guziz bezala, herriko etxeak familia haundiko amak omendu ditu. Aurten, Dunogues, Susperreguy eta Belval andereak zoriondu dituzte.**

**Franck DOLOSOR**

Ipar Euskal Herriko 138 herritan bezala, maiatzaren 27an Senperen ere gure etorkizunaz herri galdeketa bat egitea galdegin zuten herritar eta hautetsi batzuek. Batera plataforma departamenduzaleak deitu zuen mobilizazio berri hori, erearoan Nicolas Sarkozy barne ministroa Euskal Herrirat etorriko baita. Frantziako dezentralizazioaren baitan ez da euskal departamendurik sortuko beraz Bateraren ustez orain beharrezkoa da aldarrikapen hori Sarkozyri helaraztea. Ideia berekoak dira asteartean herriko etxean bildu ziren hogoita hamar bat lagun, hauen artean auzapeza, hautetsiak eta herritar batzuk. “Senpere elgarrekin” eta “Senpere egun eta bihar” taldeko kide batzuek bilkura hortan parte hartu zuten bainan Christian Fourgeauren ekipatik aldiz ez zen nehor agertu.

Bilkura horretan, Bateraren lau aldarrikapenak esplikatu zituen Christine Bessonart-ek: *«euskal departamendua, Baionako laborantza ganbara eta unibertsitatea sortzea eta euskarari ofizialtasuna ematea»*.

Bertze herri batzutan bezala, ideia hauek sustengatzen duten mozio bat presentatuko da seguraski ondoko herriko kontseiluan. Herri gehienetan mozio hori onartzen bada, Sarkoyzri argiki erakutsiko zaio Iparraldeko jendeek departamendu berri bat nahi dutela.

Heldu den uztailaren 6an, Kortsikako bi departamenduek bat egin behar ote duten erran beharko dute hango herritarrek.

Erreferenduma bat antolatuko du Frantziako gobernuak nahiz eta bortizkeria ainitz baden oraino ugartean. Gurean halakorik ez dela azpimarratzen dute departamenduzaleek eta beraz gauzak errexagoak direla diote.

Gainera, lehen ministroak berak pentsatu zuen tokiko herri galdeketak egitea Frantzia guzian. Asmo horiek aplikatzea bertzerik ez du eskatzen Baterak. Urrian, bertze manifestaldi bat ospatuko da Baionan.



**SPUC errugbi taldea beti ere sasoin ederrean.**






AZKAIN

# Hautetsiek Baterako mozioa eztabaidatu zuten herritarrekin

## Panpi Laduxe pilotari azkaindarra errebotean hasi da Pauen



ARGAZKIA: ENEKO JORAJURIA

**Batera plataformak bere mozioarekin Sarkozy barne ministroari eskatu nahi dio erreferrenduma baten antolatzea Ipar Euskal Herrian lau errebendikazioren inguruan: Departamendua, Laborantxa Ganbara, Berezko Unibertsitatea eta Euskararen ofizialtasuna.**

Ihintza, Angela eta Eneko

Azkainen ere Herriko Etxea ideki zuten Baterako plataformak antolatutako eztabaidaren eremateko. Ipar Euskal Herrian 130 herriko etxetan egin zen gauza bera. Donibane Lohitzune, Baiona eta Miarritze izan ziren salbuespen nagusiak, bertako auzapezek ez baitzuten nahi herriko etxeak eztabaida hura onart dezan.

Batera plataformak bere mozioarekin Sarkozy barne ministroari eskatu nahi dio erreferrenduma baten antolatzea Ipar Euskal Herrian lau errebendikazioren inguruan: Departamendua, Laborantxa Ganbara, Berezko Unibertsitatea eta Euskararen ofizialtasuna. Mozio horren arabera badu aspaldi lau puntu horiek bortizkeriarik gabe eskatuak direla eta herritarren gehiengo bat biltzen dutela.

Azkainen hitzordua arratsaldeko 6etan ezarria zuten, behar bada sobera goiz jendea biltzeko. Hala ere 20 bat pertsona hurbildu ziren, hautetsiak nagusi: Laduxe Auzapeza, Rybalka, Labat eta Larrañaga anderak, Charrier, Clausell, Daubas, Amadoz Ibarboure jaunak.

Eztabaida departamenduaren gaiarekin luzatu zen gehienik. Bainan ez zen nehor Bil Tokin euskal departamenduaren kontra agertzen. Laborantxa ganbararen gaiak ez zuen arrakasta haundia izan eta unibertsitatearenak ere ez. Euskararen ofizialtasuna aipatu zelarik kezka batzu agertu ziren, pertsona batek jakinnahi zuen zer aldaketa eraginen zuen konkretuki Euskararen Ofizialtasunak eguneroko bizian. Demo taldeko gazte bat ere hurbildu zen erratexko gai horiek publikoki eztabaidatzea Herriko Etxean pozten zuela. Bertze pertsona batek aldiz errebendikazioetan eskas bat sentitzen zuela azaldu zuen, euskal herriak jasan errepresioa salatzen ahal baitzen Sarkozy jaunaren bisitakari.

### Panpi Laduxe pilotaria errebotean hasi da Pauen

48 urterekin Panpi Laduxek pilotari aitzinamendu berri bat hasi du. Bi aldiz hegoaldeko xapelketa irabazi ondoren Tolosarekin 87an eta 89an iparraldeko xapelketarat itzuli zen. 1997an utzi zuen pilota bainan entrenatzaile gisa segitu zuen, Xala Lekuindarra ere segitu zuen 2002-ko xapelketan. Aurten sorpresa sortu zuen azaldu zuelarik Paueko talde batean arituko zela errebotean, sakalari gisa, xapelketako lehen mailan. Bere erranetan bazuen aspaldi joko hortan aritzea amesten zuela.

### Pilota Plaza tintatuko dute

Herriko pilota plaza duela 3 urte udan tintatu zuten bainan berotasunarengatik tintak ez zuen hilabete bat iraun. Ekaina hastapenean berriz tintatuko dutela jakinarzaten du herriko Etxeak. Palantxa lehiaketak eta pilota partidak gibelatu beharko dira.

### Saski Baloi Torneoa

Urte guziz bezala Saski Baloi torneoa ontolatuko dute Azkaingo jokolariek. Donapaleu, Hendaia, Donibane Lohitzune eta Donapaule bezalako herrien parte hartuko dute lehiaketan.

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• Sukalde mobleak
• Bainu mobleak
• Manparak
Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 580 562 IRURITA



SARA

# Sarako Izarra errugbi taldeak galdu zuen finala Kanboko ekiparen kontra

BKBO musika taldea sortu da Gaztetxetik

**Joana eta Saski**

Maiatzaren 11n iragan den Côte Basque txapelketako finala galdu zuten Sarako Izarrako errugbilariek, 17-12 Kanboko ekiparen kontra. Hala ere, txapelketa batendako kalifikatuak izan ziren, hala nola «Akitaniako Challenge»an. Maiatzaren 25ean, igandez, Sauveterren jokatu zuten erdifinala irabazi dute, 26 eta 14, Théze, bearnes talde bati nagusituz.

Sasoin eder bat ari dira egiten gure herriko errugbilariak eta agian bururaino joanen dira txapelketa honetan.



ARGAZKIA: XABI BERROUET

**Euskal Kostako finala galdu ondotik, orain Akitaniako Challengean parte harzen ari da Sarako Izarra errugbi ekipa. Jadanik erdifinala jokatu dute eta agian, txapelen bat ekarriko dute oraino.**

### Urtxintxak taldearen txapelketa

Urte guziz bezala, Sarako saskibaloi taldeak bere txapelketa antolatu du. Joan den maiatzaren 24an, polikiroldegian, Sarako bi ekipa nagusitu dira finala nagusian bai eta finala ttipian. Ondotik, gau goxo bat pasatu dute zikiro baten inguruan, giro on batean.

### BKBO musika taldea sortu da Gaztetxetik

Sarako Gaztetxetik sortu zaigu musika talde berri bat, bortz musikariz osatua eta BKBO (Brutal Kinki Band Orkestra) deitua. Beren lehen kontzertura lagun ainitz hurbildu zen Itsasuko Goxoki Gaztetxean.

Agian oraindik kontzertu ainitz emanen dituzte eta haien berri ukanen duzue!

### Zazpiak Bat Dantza taldea

Zazpiak Bat dantza taldeak, urtero bezala zikiro bat eskaini du maiatzaren 18an, urtean zehar lagundu duten jende guziak eskertzeko. Pertsona guziak gomitatuak dira uda honetan, jadanik ari diren jendeei laguntza ekartzera. Udaro bezala, hainbat emanaldi eskainiko ditu taldeak.


MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

BEINTZAko OSTATUA
✆ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ehnelur
euskal herriko nekazarien elkartasuna
Mota guztietako gasolioa
Baserrietarako

Mikel 606 340630

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 15etatik 19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ARTEKARI



# EZKONTZAK

**Jon Mikel Lizaso Urkiola** eta **Begoña Pikabea Etxebeste**, Usurbil eta Berakoa, maiatzaren 17an.
**Jon Telletxea Urroz** eta **Jeanne Marie Quertier Munarriz**, Elizondo eta Californiakoa (EEBB), maiatzaren 17an.
**Mathieu Pierre Otto Aussermeier** eta **Yulia Vasylivna Fischuk**, Azkaingoak, maiatzaren 24an.
**Sébastien Perez** eta **Chistelle Nathalie Estadieu**, Azkaingoak, maiatzaren 24an.



# SORTZEAK

**Nerea Gonzalez Bildarraz**, Leitzakoa, maiatzaren 17an.
**Jaime Errandonea Aldea**, Berakoa, maiatzaren 5ean.
**Reichel Estibaliz Tipanquiza Verdejo**, Berakoa, apirilaren 18an.
**Olaia Sanzberro Cabezas**, Berakoa, maiatzaren 14an.
**Aitor Adin Bidegain**,Arizkungoa, maiatzaren 11n.
**Aizpea Isuskiza Aranburu**, Amaiurkoa, maiatzaren 17an.
**Gorka Jaurena Irisarri**, Arizkungoa, maiatzaren 14an.
**Joseba Maiora Iribarren**, Lekarozkoa, maiatzaren 18an.
**Lide Igoa Fontan**, Lesakakoa, maiatzaren 13an.
**Naroa Gerendiain Sarratea**, Doneztebekoa, maiatzaren 11n.
**Ane Iparragirre Opoka**, Doneztebekoa, maiatzaren 21ean
**Elur Iparragirre Opoka**, Doneztebekoa, maiatzaren 21ean.

# HERIOTZAK

**Robert Georges Henri Bouan**, Senperekoa, apirilaren 3an.
**Sabino Domingo Balbin**, Senperekoa, apirilaren 14an.
**Marie-Jeanne Durruty** ezkondua **Zamora**, Senperekoa, apirilaren 17an.
**Jean Laskano**, Senperekoa, apirilaren 17an.
**Catherine Sabalette** veuve **Larraboure**, Azkaingoa, maiatzaren 4an.
**Joséphine Iturria**, Azkaingoa, maiatzaren 5ean.
**Cesareo Gartxitorena Bergara**, Almandozkoa, maiatzaren 12an, 74 urte.
**Juana Francisca Gamietea Latasa**, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 13an, 94 urte.
**Jose Miguel Etxeberria Amatriain**, Elizondon, maiatzaren 13an, 82 urte.
**Francisco Jose Camino Bidegorri**, Elizondokoa, maiatzaren 18an, 60 urte.
**Martin Almandoz Iribarren**, Narbartekoa Erratzun, maiatzaren 22an, 87 urte.
**Francisco Javier Ostolaza Iriarte**, Doneztebekoa, maiatzaren 14an, 59 urte.
**Maria Asuncion Urtsuegi Arizaleta**, Etxalarkoa, maiatzaren 16an, 73 urte.
**Tomas Rodriguez Rodriguez**, Lesakakoa, maiatzaren 21ean, 54 urte.
**Emilie Errandonea**, Sarakoa, maiatzaren 15ean, 88 urte.
**Philippe Antoine Da Veiga**, Azkaingoa, maiatzaren 17an.
**Claude Maurice Lemarc**, Azkaingoa, maiatzaren 13an.
**Jeanne Marie Maitia Ezpeleta**ren alarguna, Azkaingoa, maiatzaren 21ean.

---



## Luis Mari MAIA ARIZTEGI

**2. URTEURRENA**

*Erraza izan zen zu maitatzea*
*ezinezkoa berriz*
*zu atzentzea.*
*Laister arte.*

EMAZTEA ETA SEME-ALABAK

Etxalarren,
2003ko ekainaren 10ean

---

## Isidoro ALTZUGUREN AGIRRE

**2003-V-28**

*Gure gau ilunak*
*Argituko dituen izarra*
*Buruan bueltaka dabilen*
*Irriaren oihartzunaren islada*
*Zu gure bihotzean*
*Beti altxatuko dugun*
*Isidoro maitea izanen zara.*

**ZURE ILOBAK**

---



## Isidoro ALTZUGUREN AGIRRE Jauna

**(Francisca Matxikoteren alarguna)**
**Berriki hila**

*Urak dakarrena urak daroa,*
*zuk emandakoa*
*gurekin gelditzen da.*

Bere familiak zoritxarreko egun hauetan hartu dituen dolumin ugariak lerro hauen bitartez eskertu nahi lituzke bihotz-bihotzez.
Gure eskerrik beroenak guziei.
Beran, 2003ko maiatzaren 28an

TXIRRINDULARITZA

# Unai Barazabal azpilkuetarra Nafarroako txapeldun elite mailan

Lukinen maiatzaren 18an egindako proban gailendu zen

**A.A.**

Txirrindularitza afizionatuaren mailan, maiatzaren 18an jokatu zen Lukinen Nafarroako errepideko fondo txapelketa. Bertan, Caja Rural taldean ari den Unai Barazabal azpilkuetarra gailendu zen Elite kategorian, Nafarroako txapelketa eskuratuz. Caja Rural taldeak erakustaldi bikaina eskaini zuen eta 23 urtez beheitiko mailan ere, talde bereko Jorge Azanza gailendu zen. Erran behar da, lasterketako bortz lehendabiziko postuak Caja Rural taldeko txirrindularientzat izan zirela. 130 kilometroko ibilbidea osatzeko hiru ordu 20 minutu eta 38 segundu behar izan zituen Unai Barazabalek, Juanjo Oroz taldekidearen denbora bera. Minutu eta 28 egundura ailegatu zen hirukotean ere, hiruak Caja Ruralekoak ziren: 23 urtez beheitiko txapelketa irabazi zuen Jorge Azanza, Jon Arrieta eta Gorka Verdugo. 43 txirrindularik eman zuten izena lasterketa honetan eta 19 bertzerik ez ziren helmugaratu.




ARGAZKIAK: D.NOTICIAS

**Jorge Azanza eta Unai Barazabal azpilkuetarra, 23 urtez beheitiko eta elite mailako Nafarroako txapeldun berriak podiumean.**

# Giroan parte hartu ondotik, Euskal Bizikleta eta Espainiako Vuelta eginen ditu Patxi Vilak

Beratarrak sasoi onean akautu du hiru asteko bere lehen itzulia

**A.A.**

Lampre taldean ari den Patxi Vila txirrindulari beratarrak ez du atsedenerako astirik izanen, Italiako Giroa akautu ondotik. Milanetik bueltan, aste honetan berean Euskal Bizikletan parte hartu beharko du. Hori bai, ondotik, bi hilabeteko atsedena izanen du, abuztuan hasiko baita Espainiako Vuelta prestatzen. Donostiako Klasika, Urkiola eta seguruenik Burgosko Itzulia eginen ditu.



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

**Patxi Vila beratarra izan da txirrindulari euskaldun bakarra aurtengo Italiako Giroan.**

## FLASH

### *Sunbillako Mendi Bizikleta lasterketa*

Maiatzaren 10ean egin zen Sunbillako mendi bizikleta lasterketa. Gutira berrogeita hameka lagunek hartu zuten parte lasterketan. Maila nagusian, 30 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten txirrindulariek. Emanuel Itoiz izan zen irabazle, Joxe Mari Goia bigarren, ordubete eta Ander Elizagarai hirugarren. Hamasei urtez beheitiko kategorian, Iker Ezkarai aisa gailendu zen. Ordubete eta bortz minutu behar izan zituen ibilbide laburxeagoa osatzeko. Iñigo Almandoz izan zen bigarren, lau minutura eta Oskar Barnetxea hirugarren, zazpi minutura.

### *Doneztebeko XXV. Krosa*

Ekainaren 15ean burututuko da Erreka elkarteak 25. urtez antolatutako Doneztebeko herri krosa. Goizeko 10:30etan hasiko dira maila ttikienetako probak eta 11:30etan abiatuko da proba nagusia, gazte, senior eta beterano mailako emakume eta gizasemeek. Emakumeek lau kilometroko ibilbidea osatu beharko dute eta gizonek zortzi kilometrokoa.

### *Unai Apeztegia bigarren mailan*

Lehen mailan segitzeko azken aukera galdu zuen Unai Apeztegia pilotari aurtiztarrak maiatzaren 26an Tolosan jokatutako partidan. 18-22 galdu zuen Imazen kontra eta jautsierako ligaxkako azkena izan da. Beraz, bigarren mailara itzuliko da Apeztegia hurrengo txapelketan.

HERRI KIROLAK

# Beti Gaztek irabazi du 640 kiloko Nafarroako sokatira txapelketa



Aurten kategoria bakarrean parte hartu dute lesakarrek

A.A.

Lekunberrin maiatzaren 17an eta Berriozarren maiatzaren 24an jokatutako bi saioak irabazi ondotik, Lesakako Beti Gazte taldeak irabazi du aurtengo Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketa, 640 kiloko kategorian. Lesakarren ondotik, Txantrea, Berriozar eta Ezkabaondoa sailkatu dira. Azkeneko urteetan negu aldera egiten ziren Nafarroako sokatira txapelketak, baina aurten udaberrira aldatzea erabaki du Herri Kirol Federazioak, taldeen eskariz.

Azken urteetan lau kategoriatan irabazi du Lesakako taldeak Nafarroako txapela, baina aurten txapel bakarrarekin gelditu beharko du. Izan ere, taldeek hala erabakita, 560 eta 680 kilotan ez da txapelketarik jokatuko aurten. Bertze aldetik, igande honetan Iruritako Errebote plazan hasi zen 600 kiloko kategorian talderik ez ateratzea erabaki du Beti Gaztek. Beraz, Txantrea, Berriozar eta Ezkabaondoa ariko dira pisu honetan.

Emakumeen artean, Imotz izan da txapeldun 520 kiloko kategorian, Berriozar bigarren eta Burlata hirugarren. 480 kilotan ere hiru talde hauek lehiatuko dira.



# AGENDA egunez egun

**BESTAK**

**BERROETA**

**Ekainaren 6tik 9ra**
Xehetasunak 18. orrian.

**ALMANDOZ**

**Ekainaren 18TIK 22ra**
Xehetasunak 19. orrian.

**BERA**

**Ekainaren 13tik 15era**
Altzateko bestak.
Xehetasunak 9. orrian.

**MENDI IBILALDIAK**

**BAZTAN**

**Ekainaren 8an**
Hartzamendira joanen dira Baztango Mendigoizaleak.
**Ekainaren 15ean** Baztan Herriz Herri Ibilaldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

**ZUGARRAMURDI**

**Ekainaren 8an** Urruñara ateraldia eginen du Atxuria mendi taldeak.

**ARANTZA**

**Ekainaren 8an** Arantzako I. mendi Itzulia. Xehetasunak 13. orrian
.

**XXV. KULTUR ASTEA**

**LEITZA**

**Ekainaren 4an** Jakoba Errekondoren hitzaldia, Aurreran 20etan.
**Ekainaren 5ean** Agustin Aranburuk eskainitako bideo emanaldia, zineman 20etan.
**Ekainaren 6an** «Galaxi» kale antzerkia eskolako atarian 11:30etan. 22:30etan «Biblia osoa… gutxi gora behera» antzerkia Zineman.
**Ekainaren 7an** Mikel Markez eta Pako Aristiren kantaldi-errezitaldia zineman 20etan.
**Ekainaren 8an** herriko koadrilen arteko herri kirolak plazan 12etan. Leitzako ESAITek antolatua. 13etan kalejira erraldoiekin. 14:30etan herri bazkaria plazan. Jarauta 69 txaranga.

## TELEBISTAKO TXOKOA






IX. MUGAZ GAIN ANTZERKI JAIALDIA

# Gure haur eta gaztetxoen antzerki lanak telebistan

Bederatzi urte baditu dagoeneko Berako Mugaz Gain haur eta gazteentzako antzerki jaialdiak. Lamixinek, Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin, antolatzen duen jaialdiaren bederatzigarren egin da maiatzean. Maiatzaren 15 eta 16an Berako Antzeko Parezido, Lau Kato, Anonimak, Zizurko San Fermin eta Lesakako Tantirumairu Ikastolakoak aritu ziren. Emanaldi hauek ikastetxeetako ikasle eta irakasleentzat izan ziren.
Maiatzaren 16an, arratsaldean, nahi duen jende guztiak ikusi ahal izan zituen berriz ere Anonimak taldea "Hau Beroaldia" eta Lau Kato "Zer gertatu da?" lanak . Arratsean berriz, Antzeko Parezido eta Donibane Lohitzuneko Sacaramuccia taldeek testu erotikoen irakurketarekin akabera eman zioten egunari. Maiatzaren 29 eta 30an Lesakako Tantirumairu eta Berako Labiaga, Rikardo Baroja eta Jesusen Bihotzako haurrak aritu ziren. Bi egun hauetan ere, goizez ikastetxeendako emanaldia egin ziren eta arratsaldez, Kultur Etxeko ateak berriz ere zabaldu ziren, nahi zuenak sartzeko.
Emanaldi hauetako batzuk osoosorik grabatu zituen ttipi-ttapa telebistak eta zuen etxeetara helaraziko ditu hurrengo egunetan, albistegi saioaren ondotik.

## DISKAK



*«Zuretzat»*

**Koldo eta Arantxa**

*ELKAR (TRIKI), 2003*

Koldo eta Arantxa Beasaingo anai-arrebek gure herri musikaren transmisio zubian katebegi koloretsua marraztu dute. Familiatik datorkien zaletasuna talentuz hornitzen jakin izan dute, berezko zaporea duten pieza dantzagarri bezain gustagarriak sortzeko. Beren kantuak alai eta koloretsuak dira, lehen entzunaldian harrapatzen gaituzten ilusio haziak. «Zuretzat» disko zuzena da, moldaketan soila eta garapenean sendoa, non interpretazioaren metikulosidadeak are ederrago janzten dituen barrenean aurkezten diren 13 kantuok. Diskoa, azkenean, musika herrikoi zintzo eta erakargarria eskaintzeko Iparragirretarrek duten grinaren emaitza gardena dugu. Koldo eta Arantxak, ezinbertzean, barren-barrenetik harrapatzen gaituzte, bihotzetak bihotzera, gure ametsak hurbil ditugula.

## BASERRIA

Datu Iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Maiatzaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)



**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**
(19 kilo): 13,00 €

**Zerri gizena**
0,922 € kiloa.

**Zerramak:**
0,46 € kiloa, bizirik.



**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,10
**1.koa** 2,98
**2.koa** 2,88
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 3,16
**1.koa** 3,04
**2.koa** 2,93

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Mestizoak:** urruxak 265,00 € eta idixkoak 255,00 €

**Nabarrak:** urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,75/2,90
Zaldi-behorrak: 1,75/1,86
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,40/5,70
8-10 kilokoak: 4,45/4,80

## JAKIN BEHARREKOAK



# Berriz ere maitemindua

*Gero eta urte gehiago bizigara, baina gero eta dibortzio eta bereizte gehiago izaten dira. Gaur egun, ez da harritzekoa 65-70 urteko pertsona bat berriz maitemintzea.*

Horrek ez du deus txarrik, maitemintzea ilusioa berreskuratzea, bizitzaren ikuspegia aldatzea baita… baina pertsona aunitzek ez dute begi onez ikusten «xaharrak» berriz ere maitemintzea. Horregatik, «hirugarren gaztetasunean» baldin bazaude eta berriz maitemindu bazara, kontuan hartu:

• Zure buruan pentsatu eta maitemindu zarela onartzen ez duten senide eta lagunei zoriontsu eta ilusioz zaudela jakinarazi. Hori ulertzen baldin badute oraindik zoriontsuagoa izanen zarela erran, baina ulertzen ez badute, «zer erranen dutenaren» beldurrez ez duzula zoriontsu izateari utziko, garbi utzi.

• Batzuetan maitemindu den pertsona bera izaten da egoera onartzen ez duena. Zure kasua hau baldin bada, kontuan hartu behin bizitzen dela eta bizitzak eskaintzen dizkigun aukera guziak aprobetxatu behar direla. Igarotako denbora guzia berreskuraezina da eta beti hobea da deskuidatzea eta ikastea, egitan nahi zenuena ez egitearen damuz egotea baino.

• Bikotea edukitzerakoan bizipoza berreskuratzen duzu eta gaur egungo gizartean adin horretan nahiko arrunta den bakardade sentimendua ezabatzen du. Beraz ez ditzazun ilusioa eta konpainia ukatu.

• Normala da adin horretan zuhurragoa izatea… baina hori ez da txarra, alderantziz: bikote harremana lasaiago hartzeko modua izanen duzu.

**Rakel AMIGO**
**Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak**




# AGENDA egunez egun

### KONTZERTUAK

#### BERA

**Ekainaren 6 eta 7an**, Ertz jaialdia Kultur Etxean, 20:00etan. Nazioarteko zein Euskal Herriko artistek bertze musiken jaialdia hornituko dute.

**Ekainaren 11n**, 19:00etan Isidoro Fagoaga Musika Eskolako ikasleen kontzertua Kultur Etxean.

**Ekainaren 15ean**, Beasain, Ribaforada, Buñuel, Zangotza, Lesaka eta Berako musika banden topaketa. Goizez karrika karrika ibiliko dira eta 13:00etan kontzertua Altzateko Plazan.

### ERAKUSTALDIAK

#### BERA

**Ekainaren 13an**, 20:00etan Berako jazz-dantza ikasleen ikasturte bukaerako ohiko emanaldia Kultur Etxean.

### BIDAIAK

#### LESAKA

**Ekainaren 11n**, Ordiziako feriara bidaia antolatu du San Fermin jubilatu elkarteak. Izen ematea bazkideentzat ekainaren 7a baino lehen. Bazkide ez direnek ekainaren 8an.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**112 TFNORA. DEITU**

#### Ekainaren 2tik 8ra

Igantzi, Doneztebe (A. Mendia), Elizondo (R. Gezuraga) eta Goizueta.

#### Ekainaren 9tik 15era

Lesaka (M.J. Txoperena), Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Irurita, Leitza (M.I. Larraia) eta Goizueta.

#### Ekainaren 16tik 22ra

Bera (M.J. Sanz), Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (F. Garcia Mata), Mugairi eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

**ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA**

**00-34 948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
- **101.** Saldu
- **102.** Erosi
- **103.** Errentan emateko
- **104.** Errentan hartzeko
- **105.** Etxe konpartituak
- **106.** Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- **107.** Saldu
- **108.** Erosi
- **109.** Errentan emateko
- **110.** Errentan hartzeko
- **111.** Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- **112.** Saldu
- **113.** Erosi
- **114.** Errentan emateko
- **115.** Errentan hartzeko
- **116.** Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- **201.** Hargin/Igeltseroak
- **202.** Pintoreak
- **203.** Elektrizistak
- **204.** Iturginak
- **205.** Zurginak
- **206.** Mendi lanak
- **207.** Garraioak
- **208.** Bertzelakoak

**LANA**
- **301.** Eskariak
- **302.** Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- **401.** Eskaintzak
- **402.** Akademiak

**MOTORRA**
- **501.** Salerosketak
- **502.** Tailerrak

**ANIMALIAK**
- **601.** Emateko
- **602.** Salerosketak
- **603.** Klinikak

**DENETARIK**
- **701.** Galdu / aurkituak
- **702.** Salerosketak
- **703.** Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- **801.** Agurrak

### ETXEBIZITZAK
## 101 Saldu.

**ARIZKUN.** Pisu mobleztatua salgai. Trastero eta garajearekin. Sartzeko moduan. Egoera onean. ☎ 639 012 085

**ETXALAR.** Etxe unifamiliarra salgai. ☎ 670 410 581.

**LESAKA.** Antoiu karrikan pisua salgai. Mobleztatua eta ia-ia berria dago. ☎948 627 536 / 652 738 241

**ELIZONDO.** Braulio Iriarte karrikan pisua salgai. ☎667 418 661

**BERA.** Pisua salgai. ☎ 948 631 389

**ETXALAR.** Baserria leku ederrean bere terrenoarekin salgai. ☎ 948 635 060

### ETXEBIZITZAK
## 102 Erosi.

**ELIZONDO.** Pisua erosiko nuke. ☎ 670 749549.

### ETXEBIZITZAK
## 103 Errentan eman

**BERA.** Iturlandeta auzoan pisua alokatzen da. ☎ 948 630 090 (arratsaldeko 2etatik 4etara)

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
- Edozein herritan badugu zerbait.
- Terrenoak erosten dira.

948 451 841 / 607 978 656

**ADOS**
- Donezteben obra berriak. Santa Luzia plazanazken 2 apartamentu eta lokal komer-tzialak salgai.
- Osasun Zentru ondoan pisu berriak salgai.
- Aparan zonaldean pisu berriak eta azkeneko 3 partzela eraikigarriak salgai.

948 451 841 / 607 978 656

**BERA.** Pisua errentan emateko. 3 logela, sala eta sukalde ekipatuarekin. Prezio onean. ☎ 00 33 616 503 945

### ETXEBIZITZAK
## 104 Errentan hartu

**DONEZTEBE.** Pisu bat errentan hartuko nuke, mobleztatua eta kalefakzioarekin. ☎ 690 621 836

**BERA.** Pisu bat errentan hartuko nuke. ☎ 669 938 223

### GARAJE/LOKALAK
## 109 Errentan eman

**ETXALAR.** Nabe bat errentan emateko. Karreteran bertan, herriaren sarreran. 300m² inguru, 4 bulego, nabe bat eta komuna. ☎ 948 635 013.

### LANA
## 302 Eskaintzak

**Haurtzaindegi eta Zentru publikoek** haurtzaindegietarako langilegoa behar dute. Eskakizuna. Haurtzaindegi FBII:Adoz ☎ 948 199 596

**Harreragileak,** gidariak, lorezainak, atezainak, zaindariak, telefonistak, mantenimendua, zerbitzu anitzak... Udaletxe eta Foru aldundietan lan egiteko. Adoz. ☎ 948 199 596

**Gidariak** behar dira Udaletxe eta Foru Aldundietan lan egiteko. Eskola graduatua.Adoz ☎ 948 199 596

**Tolosa,** Hondarribia, Lasarte eta Hernaniko Udaletxetan 18 udaltzain behar dituzte. Eskola graduatua. Adoz ☎ 948 199 596

**Suhiltzaile parkeak.** Donostia, Eibar, Hernani, Tolosa eta Zarautzen deialdiak laster. Batazbesteko diru-sarrerak: 1800 euro.Adoz ☎ 948 199 596

**Baso-pertsonala.** Parke eta Natura Erreserbatan agente, zaindari zein peoi bezala lan egiteko. Lanera altxatzeak laster. Lan-baldintza ezinhobeak.Adoz☎ 948 199 596

**Administrariak,** laguntzaileak eta teknikariak. Soldata finkoa: 1000 euro g.g.b Donostia, Irun, eibar, Elgoibar, Bergara, Arrasate eta Hernanin lanpostuak. Adoz:☎ 948 199 596.

**Liburutegi-laguntzaileak.** Lan egin ezazu. Udaletxeak, artxiboak eta Unibertsitateak. Berehala altxatzeko. Adoz. ☎ 948 199 596.

**Gida-eskola irakasleak** eta garraiolariak. Profesional bihur zaitez. Langabeziarik gabeko lanbideak. 1800 euro g.g.b .Adoz. ☎ 948 199 596.

**Goizuetan kokaturik** dagoen ISKIBI kanpinaren kudeaketa eskeintzen da. Kudeaketaren truke jatetxe-osta-

CARPINTERIA SUSPERREGUI

**ESKAILEREN FABRIKAZIOA eta KOLOKAZIOA**

**Material motak:**
- Haritza
- Sapelly
- Iroko
- Elondo
- Pinua



Ventas Auzoa 27 (Landetxa) • **20305 IRUN**
Tel: 943 628171 • Faxa: 943 632660 • e-mail: hoppe@euskalnet.net

tu emanen da. Baldintza; Sorosle titulua edukitzea. Informazio gehiagorako Lan Orientaziorako Zerbitzua. ☎ 610 829 289.

**BERA.** Igerilekuetako ostatua errentan ematen da uda denboraldirako. Prezioaz solastuko dugu. ☎ 610 226055.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Nissan GR-SE salgai.** 47.000km eta etxeko urte betekin garantia. ☎ 655 720 052

**Yamaha XT 3´50ka salgai.** Plato eta Piñoiakin. 2000 euro. ☎ 948 450 711

**Yamaha superténeree 600 salgai.** Prezio eta egoera onean. Negoziagarria. ☎ 686 913 189.

**Citroen ZX autoa salgai.** NA-3300-AH. ☎ 661 974 778

**Golf GTD salgai.** NA-AC eta 200.000kmrekin. ☎ 948 580 131 - 609 004 983

**KTM 80 Trail NA-AD salgai.** ☎ 948 452 288 (Arratsaldez)

**Golf IV TDI 110zaldikoa salgai.** Azul metalizatua, 2000 urtekoa eta 57.000kmrekin. ☎ 659 595 608

**Renault Megane Coupe Alize 1.9 Dti salgai.** ☎ 605 972 726

**Renault express zerratua,** ganadurako proposatua salgai. NA-AL. Egoera onean. ☎ 629 059 740

**Audi A100 TDI 140z-koa salgai.** Prezio eta egoera onean. ☎ 636 883 344 (Haritz)

**Golf GTD autoa salgai.** NA-AC matrikuladuna. 200.000 km. Egoera onean. ☎ 948 580131.

**2 Lada Niva salgai.** Bat piezatako. Egoera onean. ☎ 652 754 480

**KTM 80 Train motoa salgai.** NA-AD matrikuladuna. ☎ 948 452288 (Arratsaldez).

**Yamaha Aerox motoa salgai.** Extra askorekin. ☎ 948 610779 (Jexux).

## ANIMALIAK
### 601 Emateko

**Katakume zoragarriak** emateko. ☎ 948 637213.

## ANIMALIAK
### 602 Salgai

**Burguete arrazako zaldi sementala** salgai. ☎ 630 624 223.

**Bi ahare salgai.** Mutur gorriak. ☎ 948 451504.

## DENETARIK
### 701 Galdu-aurkituak

**Renault autoko giltzak** Beran topatu dira, Agerra elkartearen ondoan. ☎ 948 631 188

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Enpaketadora presiozkoa** traktore ttikiendako salgai. ☎ 948 452 110

**Musika ekipoa** salgai. 2000w, etapa eta ekipoko kableekin. Berbena talde batena. Egoera oso onean. ☎ 649 83 99 22

**LEGASA.** Logela zubi armairuarekin salgai. 90eko 2 ohe, koltxoi eta somierrarekin. Pagoa materialarekin egina. ☎ 948 450 950 - 669 185 858

**Bixkiendako silleta** salgai. 250 E. ☎ 948 63 70 06

**Agotz eta lasto fardo ttikiak** saldu eta garraiatzen ditut tafalla aldetik. ☎ 650 340 390

**Estetika aparatuak** salgai. Bapore-ozonoa, lupa eta frekuentzia altua. Guti erabiliak. ☎ 948 635234 (Ageda).

## HARREMANAK
### 801 Agurrak

**Xabier Lekuona Otxandorena** lezoarrak 22 urte beteditu maiatzaren 29an. Zorionak lagunak eta familiaren partetik.










MENDAUR MOTOR
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Terrano 5 atekoak, Opel Astra DTI, Montero 3 atekoa, Opel Midi, Opel Astra 1.6i, Opel Zafira, Peugeot 306 HDI, Lada Niva, Nisan Patrol 5 atekoa
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN






# ttipi-ttapa

## urtebetetzeak

Argazki soila: 3 €. Bikoitza: 6 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,26€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3 edo 6 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.**



**Martin Etxegarai** lesakarrak 5 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak Goretti, Fernando eta gurasoen partetik.



**Olatz Mitxelena Sagastibeltza** beratarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak. Lesakako amatxi, osaba-izeba eta Garazi.



**Txus Migeltorena Etxegia** lesakarrak maiatzaren 25ean bete ditu urteak. Zorionak bere alaba Garaziren partetik.



**Julen Telletxea Perugorria** etxalartarrak 5 urte beteko ditu ekainaren 16-an. Zorionak Imanol, atta, ama eta famili guzien partetik.



Iruñeko **Oier**ek 2 urte bete ditu ekainaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



**Aritz Irazoki Etxarri** irundarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 29-an. Zorionak eta muxu haundi bat atatxi, amatxi eta Juanjoren partetik.



**Igor Lantz Urtxegi** beratarrak ekainaren 5ean 6 urte beteko ditu. Zorionak aunitz familiaren partetik.



**Gaizka Gallardon Altzugarai** etxalartarrak 15 urte bete ditu maiatzaren 24-an. Aunitz urtez eta ongi pasa eguna. Aupa Beti Gazte!



Almandozko **Fernando Agerre** eta bere biloba **Oihan Agerre Etxebertz**ek 76 eta 3 urte bete dituzte maiatzaren 28an. Aunitz urtez bere familia guziaren partetik, berexiki Oihanen aita, ama eta bere arreba Uxoaren partez. Zorionak.



**Beñat Iantzi Etxarte** lesakarrak 3 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak Olaia, aita eta amaren partetik. Aupa Erreala!



**Martxel Larralde Monterrosa** k urte bat bete du ekainaren 4an. Zorionak Lesakako familia guztiaren partetik.



**Andrea Etxeberria Elizalde** igantziarrak 3 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak bere familia guziaren partetik.



**Alizia** sunbildarrari: Zorionak ekainaren 2an urteak betetzen dituelako. Txanpainaren zain nago. Pitzitziren partetik.



**Unai Gurrutxaga Errandonea** lesakarrak11 urte bete ditu maiatzaren 29an. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Edurne Alegria Iraola** beratarrak urteak beteko ditu ekainaren 11n. Zorionak Izaro eta attaren partetik.



**Olaia Iturria Martinez** etxalartarrak urtea beteko du ekainaren 9an. Zorionak atta eta amaren partetik. Muxu haundi bat.



**Olaia Iturria Martinez** etxalartarrak urtea beteko du ekainaren 9an. Zorionak Berako eta Etxalarko familien partetik, b.e. Oier, Markel eta Uxue.



**Unai Zamorano Duarte** lesakarrak 8 urte beteko ditu ekainaren 19an. Zorionak aita, ama eta Aimarren partetik.






# ORDOKI ALTZARIAK



Etxerako osagarriak

**ESTILO UGARIKO MOBLEAK** • Klasikoa eta Modernoa aukeran

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA





- *Gazteendako mobleak*
- *Armairu enpotratuak*
- *Neurrira egindako armairuak*
- *Sukaldeak*
- *Aurrekontuak konpromezurik gabe*

ERAKUSKETA: Bittiria 30
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

O T O

3

U TEU EN

EK IN K
L UN T

7

d a ald a gure erres denteek n

d JUL n - d m I

EK IN K
L UN T

1

SU UEU

DENBORALDI BUKAERAKO BESTA SONATUA

m l sk r ur k n z t t k

U I n ELK IKUSIK UGU

TX
n l h n
h r+z zu +
+r xk

EL Č FE

st tu 12

r AMEZTIA s r

BIXEN OSTATUA

I r INTZI

Restaurante BELARRA

T I T I